


2009 Agindu komunak



Gipuzkoako Automobilismo Federazioa  
Federación Guipuzcoana de Automovilismo

# **2009 AGINDU KOMUNAK**

## **1. Artikulua- ANTOLAKETA**

**1.1.** Gipuzkoako Automobilismo Federazioak 2009. urterako ondorengo Gipuzkoako Txapelketa, Kopa, Sari eta Challenge-ak ezartzen ditu:

- RALLYEKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA
- RALLYSPRINT-EKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA
- MENDIKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA
- SLALOM-EKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Eta bakoitzari dagokion Araudian zehazten diren horietatik eratorritako Kopa, Sari eta Challenge-ak, hala nola beste hainbat espezialitate, aurrekoetatik eratorritakoak zein babesleek ezarriko baitituzte, Araudi Bereziei jarraiki, F.V.A.-ren onarpenarekin.

**1.2.** Txapelketa, Kopa, sari eta Challenge hauek esleitu gabeak adierazi ahal izango dira, bere amaierako sailkapenean, gutxienez, hiru partaide azalduko ez balira.

**1.3.** F.V.A.-k bere edonolako Txapelketa, Kopa, Sari eta Challenge-ari izen komertzial bat atxikitzeko eskubidea gordetzen du.

**1.4.** Izendapen berezirik gabe, F.V.A.-k aurtengo urterako Kontzentrazio Turistikoak eta Off-Road probak arautzen ditu, espezialitate hauetarako Agindu Berezien bidez.

## **2. Artikulua- AURKEZTEN DIRENAK**

Gipuzkoako Txapelketak, Kopak, Sariak eta Challenge-ak ondorengoentzat irekita egongo dira:

**2.1.** Aurtengo urterako F.V.A.-k egindako eta R.F.E.A.-k homologatutako gipuzkoar lizentziak duten Gidari eta Kopilotuak.

## **3. Artikulua- PROBA PUNTUAGARRIAK**

**3.1.** Ezarritako Txapelketa, kopa, Sari eta Challenge ezberdinetarako puntuagarriak izango dira, hauen Araudietako bakoitzean zehazten diren probak.

**3.2.** Sorrera berriko probak aurrekoen araudi berarekin doitu beharko dira.

**3.3.** Euskal Herrian ospatzen den proba oro denboraldi bakoitzeko Egutegi Ofizialean inskribatuta egon beharko da, Organizazioak F.G.A.-ra igorritako eskaeraren bidez eta bere ospakizunari dagokion urtearekiko aurrekoaren Abenduaren 31 baino lehenago igorrita. Muga-data hau pasatakoan, igorri gabeko eskaera oro Antolatzailearen aldetik Egutegi ofizialean proba inskribatzeari dagokionean errefusa bezala ulertuko da.

- 3.4.** Egutegi Nagusirako inskripzio-eskaerarekin batera, dagozkion Egutegi-Eskubideak erantsiko dira (ikus I. Eranskina).
- 3.5.** Denboraldian zeharreko sorrera berriko balizko probetarako, Egutegi-Eskubideak F.G.A.-ri ordainduko zaizkio, gutxienez, proba ospatu baino 60 egun lehenago.
- 3.6.** Egutegi Ofiziala eratzeko kontuan izango da nazio nahiz lurralde mailako espezialitate bereari dagozkion probetan egotea, gutxienez, bi eguneko tartea.

#### **4. Artikulua- PROBA PUNTUAGARRIA EZEZTATZEA ALA DATA ALDATZEA**

- 4.1.** Proba puntuagarri bat ezeztatzeke behar adina arrazoi ezak, dagokion modalitatearen Batzordearen iritzia irarriki, 600 €-ko penalizazio ekonomikoa izango du barne eta hurrengo urterako puntuak lortzeko ahalmena galdu ahal izango du.
- 4.2.** Ezeztapenen batek eskuartean den Txapelketa, Kopa, Sari eta/edo Challenge-aren Araudian aurreikusitako proben kopuru osoa urritzea eragingo balu, F.V.A.-k atxiki beharreko proben kopurua eta kalitatea aldatu ahal izango du, baita dagokion Txapelketa, Kopa, Sari eta/edo Challenge-a baliogabea adierazi ere.
- 4.3.** Antolaketari dagokion aldaketa oro, betiere aurrekoak bere eskubideak espresuki berriari ematen badizkio, gutxienez 60 eguneko aurrerapenarekin eta F.G.A.-k baimenduta jakinarazi beharko da. Antolaketa-errefusa eskubideak ematea bezala ulertuko da.
- 4.4.** Datari dagokion aldaketa oro, behar bezala frogatutako norbere borondatez kanpoko arrazoiren batengatik, gutxienez 30 egun lehenago jakinarazi behar izateaz gainera F.G.A.-ren baimenarekin kontatuko du eta penalizazio ekonomiko bat izango du barne. Ez da norbere borondatez kanpoko arrazoi bezala ulertzen Erakunde Antolatzailearen aurreikuspenik ezaren ondorioz gertatutako zirkunstantzia hura.
- 4.5.** Aurreko kontzeptuak Autonomia Erkidego honetako lurraldean jarduten duten Antolatzaile ororentzat izango dira aplikagarri, probaren maila, puntual lortzeko balio izatea eta espezialitatea alde batera utzita.
- 4.6.** Artikulu honen garapena Agindu Komun I. Eranskinaren barne dago (Antolaketa-Eskubideak eta Probetako Fidantzak).

#### **5. Artikulua- ARAUDI BEREZIA**

- 5.1.** Gipuzkoako Txapelketa, Kopa, Sari ala Challenge batera puntuak lortzeko balio duen Proba bati dagokion Araudi Berezia Gipuzkoako Automobilismo Federazioak argitaratutako ereduari jarraiki argitaratu beharko da.
- 5.2.** Araudi Bereziak esplizituki eta aparteko atal batean xedapen osagarri guztiak aipatu beharko ditu, zein C.D.I. eta Gipuzkoako Automobilismo Federazioak ezarritako Araudi eta Arauei dagokionean ez baitira kontrajarriko. Eusko Jaurlaritzako Kirolaren

Kultura Fisikoari dagokion legearen (37/1 eta 4 Art.) edo Antolatzaileak inposatu nahiko lukeen maila handiagoko beste araudi bat.

- 5.3.** Araudi Bereziaren barne ez dauden informazio eta xehetasun gehigarri guztiak, zenbakidun eta datadun Informazio-Buletinetan jakinaraziko dira, zein Osagarriak izendatzen baitira.
- 5.4.** Osagarri eta/edo informazio hauek Probari dagozkion ohar-tauletan azalduko dira, jakinarazpen bezala nahikoak izanik. Zilegi balitz, halaber, partaideei jakinaraziko litzaieke.
- 5.5.** Araudi Bereziari dagokion edonolako aldaketa, C.D.I.-ren 66 eta 141. artikuluen Aginduak betetzen badira soilik egin ahal izango da.
- 5.6.** Araudi Berezi oro, ala bere aldaketa oro, Gipuzkoako Automobilismo Federazioak onartu beharko du.
- 5.7.** Eskualdeko probetarako Organizazioaren eskaera oro (C.D.I. 26 eta 62. Art.) F.V.A.-ra ondorengo informazioekin batera igorri beharko da:
  - a)** Antolaketa Batzordearen eraketa (C.D.I.-ren 25. Art.).
  - b)** Onartu beharreko Araudi Berezia.
  - c)** Dagozkion onartu beharreko eskubideak (I. Eranskina Antolaketa-Eskubideak).
  - d)** Ofizialen Taula Araudi Bereziaren azalduko da, Ofizial bakoitzak dagokion eta aurtengo urterako balioduna den baimena izatea ezinbestekoa izanik. ("bideratzen ari diren" baimenak ez dira baliodun bezala onartuko).
- 5.8.** Aurreko atalean xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde barnean jarduten duten antolatzaile orok aplikatu ahal izango dute, bere proben maila, puntuak lortzeko balio izatea ala espezialitatea alde batera utzita. Jadanik aipatutako eskakizunetakoren bat aurreikusitako epe eta moduan beteko ez balitz 150 Euroko zenbatekoa duen isunaren diziiplina-zigorrarekin penalizatuko litzateke.
- 5.9.** Eskaera, gutxienez, probaren ospakizunerako aurreikusitako data baino 60 egun lehenago aurkeztu beharko da.
- 5.10.** Probari dagokion ospakizun-egunaren aurreko 30 egunak pasatakoan aurkeztutako eskaera oro, errefusatu egingo da eta lehiaketa bertan behera utziko da (C.D.I. 62. Art.).

## **6. Artikulua- ASEGURUAK**

- 6.1.** Indarrean dagoen Kiroleko Legeak eta garatzen duen araudiak Euskal Herrian ospatutako proba guztiek dagokion Federazioak igorritako Organizazioaren nahitaezko Baimena eduki behar dutela ezartzen du.
- 6.2.** Antolatzaileak Araudi Bereziaren onarpenerako eskaerarekin batera aseguruaren eskaera bat aurkeztu beharko du, hau Euskal Automobilismo Federazioak bideratu

ahal izango duelarik. Era berean, Organizazioaren Baimena lortzeko Erantzukizun Zibileko poliza bat aurkeztu beharko da, zeinek ondorengo gutxieneko estaldura izango baitu:

Rally-ak, R.T.T. Mendia eta Rallysprint (EUSKO JAURLARITZAKO TRAFIKOK ONARTUTAKOA)

Autocross Zirkuitu Iraunkorra 3.000.000 €.

Slalom, Gymkanak, Gaitasuna eta Erregularitasuna 3.000.000 €.

## **7. Artikulua- PUBLIZITATEA**

**7.1.** Debehatuta dago Txapelketa, Kopa, Sari ala Challenge bati dagokion amaiera-sailkapenaren publizitatea burutzea azkeneko proba amaitu arte eta amaierako sailkapena F.g.A.-k behin-betiko egiaztatu duen arte. Araudi hau ez betetzeak diziplina Espediente bat irekitzeko bidea emango du.

Era berean lehiaketa bati dagokion emaitzarekin lotutako publizitatea egiten duen edozein lehiakide ala enpresak, iragarritako emaitzari buruzko datu zehatzak, lehiaketaren izaera, ibilgailuaren kategoria, maila, etab. adieraziko ditu hala nola lortutako sailkapena ala emaitza.

Iritzi publikoan nahasketa eragiteko asmoz burututako edonolako ez jartzeak ala gehitzeak Diziplina Espediente bat irekitzeko bidea emango du, bai publizitateari dagokionean erantzukizun zuzena duten pertsona ala enpresentzako eta bai lehiakidearentzako.

**7.2.** Publizitatea onartuko da, betiere erasotzailea eta iraintzailea ez bada, automobil partaideei buruzkoa, baita antolatzaileek hezi, harmaila, podium, araudi, inprimaki, eta abarren gainean antolatzaileek kontratatu ahal dituztenak ere.

**7.3.** Ibilgailuen gaineko publizitateak lehiaketako zenbaki eta plakentzako gordetako karrozeriaren atala errespetatu beharko du, eta ez dute, inolako kasutan, hauen behar bezalako ikusmena eragotziko.

**7.4.** Debehatuta daude karrozerian ala ibilgailuaren profilean aldaketak eragiten dituzten nahiz irtenguneak eratzen dituzten publizitateko panelak.

**7.5.** Debehatuta dago edonolako publizitate luminiszente, islatzaile ala soinuak erabiltzea.

**7.6.** Antolatzaileek partaideei beraiek kontratatutako publizitatea eskaini ahal izango diete, hauek onartzeko ala ez onartzeko askatasuna izanik, nahitaez onartu beharreko zenbaki eta/edo plakekin lotutakoa izan ezik.

**7.6.** Antolatzaileak edonolako publizitate inposatu nahi baluke, Araudi Berezian eta inskripzio-orrietan zein den behar bezala zehaztu beharko du. Era berean Araudi Berezian honen kokapena eta dimentsioak zehaztu beharko ditu.

- 7.7.** Antolatzaileak ezingo dio lehiakide bati honek bere ibilgailu nahiz talderako jadanik kontratatuta izango zituzkeen publizitate hitzarmenekin kontraesanean dagoen publizitate bat inposatu, lehiaketaren zenbaki eta plakekin loturikoa izan ezik.
- 7.8.** Automobiletako erregai-, pneumatiko- ala lubrifikatzaile-marka bati dagokion hautazko publizitatea, ezin izango da hau errefusatzen duen lehiakide batentzako eskubide gehigarriko objektua.
- 7.9.** Antolatzaileak ezin izango du ibilgailu batek ala partaide batek eraman ahal duen publizitateari dagokionean eraginik izan, ezingo da honen aurka azaldu, Agindu hauen arau-hauste baten aurrean Kirol Komisarioek hartu ahal dituzten erabakien kasuan izan ezik.
- 7.10.** Gipuzkoako Txapelketa, Kopa, Sari ala Challenge bateko babes ofizialarekin lotutako publizitatea nahitaezkoa izango da lehentasuna izanik bertan parte hartzen dutenentzat. Bere ezaugarriak eta kokapena F.G.A.-k zehaztuko dituzte, alderdi interesatuekin aurretiaz kontsulta eginda, publizitate-hitzarmena burutzerakoan, eskuartean den Txapelketa, Kopa, Sari ala Challenge-an aplikagarria den Araudiarekiko barne duen atal ala Eranskin bezala.

Txapelketa, Kopa, Sari ala Challenge baterako eskusiboki puntuak lortzeko diren probetan, Batzorde Antolatzaileak lehentasunezko publizitateak ezarri ahal izango ditu, zeinek adar bereko beste hainbat kanporatuko baitituzte.

- 7.12.** Txapelketa baten babesari lotutako publizitateak haizetakoaren goialdeko albo bakoitzean 25 cm-ko luzera bider 10 cm-ko altuera ditu gehienez eta atzeko kristalaren behealdeko albo bakoitzean 20 cm-ko altuera bider 35 cm-ko luzera gehienez.

## **8. Artikulua- INSKRIPZIOAK**

- 8.1.** Inskripzioen amaiera, gutxienez, proba ospatu baino bost egun lehenago burutuko da eta Araudi Berezi guztietan azalduko da.
- 8.2.** Araudi Berezian, Inskripzioko Eskubideen zenbatekoa garbi adieraziko da, inolako publizitate onartzeko baldintzarik jarri gabe (zenbaki eta/edo plakekin lotutakoa izan ezik). Organizazioak eskainitako publizitatearen borondatezko onarpenak ezin izango du hauen zenbatekoaren erdia baino gutxiagoko inskripzioko eskubideen onura suposatu.
- 8.3.** Inskripzioak amaitzeko unea iristen denean, Organizazioak zerrenda bat eratuko du, zeinetan azalduko baitira:

LEHIAKIDEA  
GIDARIA/KOPILOTUA  
IBILGAILUA  
TALDEA  
MAILA/TALD.

Zerrenda hau, gehienez, amaitu ondoren 24 ordu barru igorri ahal izango da, F.G.A.-ra fax ala e-mail bidez, dagokion diru-laguntzatik deskontatuko den 150 €-ko isunaren arriskuarekin.

- 8.4.** Behin-betiko zerrenda argitaratzen denean, ezin izango da beste edonolako talderik onartu.
- 8.5.** Ibilgailu berdina ezin izango da inskribatu ezta parte hartu ere "Meeting" bereko bi proba ala gehiagotan.
- 8.6.** Araudiari jarraiki inskribatutako partaide baten justifikatu gabeko ez bertaratzea F.G.A.-ri jakinarazi beharko zaio, ekiteko, hala badagokion, Diziiplina-Espediente baten irekitzeari. Ezin izango dira inskripzioak burutu zeinetan lehenengo gidariak ala ibilgailuak XX bezala azaltzen baitira.

## **9. Artikulua- LEHIAKETAKO ZENBAKIAK ETA PLAKAK**

- 9.1.** Ibilgailu bakoitza, albo banatan eta/edo ibilgailuaren sabaian joan beharko duten zenbakien bidez identifikatuko da (dagokion Txapelketak hala arautzen duenean), zein aurretiazko egiaztapenak baino lehenago kokatuko baitira behar bezala irakurtzeko modukoak izanik.
- 9.2.** Araudiari dagozkion dimentsioak C.D.I.-ko Lehiaketako zenbaki eta ibilgailuen Publizitatearekin lotutako Araudian zehaztuta datoz eta/edo dagokion Txapelketaren Araudian.
- 9.3.** Plakek forma librekoa izan ahal izango dute, betiere ondorengo neurriekin bat etortzen badira: 43 cm. x 21,5 cm.

## **10. Artikulua- EGIAZTAPENAK**

- 10.1.** Arau hauek egiaztapen tekniko nahiz kirol-izaerakoekin lotutako antolaketa eta garapenari dagozkie eta balio loteslea dute; hau kontuan ez izateak, izan ere, aurreikusitako zigorren aplikazioa suposatuko du. Hala ere, Txapelketa, Kopa, Sari ala Challenge zehatz bateko Araudi Nagusian ala Berezian egiaztapenari buruzko arau bereziak barne izango balituzte, hauek lehentasuna izango dute artikulu honetan zehazten direnari dagokionean.  
Hala ere, arau hauek Antolatzaile, Lehiakide, komisario Teknikari eta Kirol-izaerakoek bereziki zuzenduta badaude, halaber kontuan izan beharko dira eta kontuan izan arazi bakoitzaren eskumenaren barne, Lasterketako Zuzendari, beste hainbat ofizial, gidari nahiz interesatutako beste edonoren aldetik.
- 10.2.** Antolatzaileentzako arauak.
  - 10.2.1.** Orokorra. Proba bakoitzaren aurretik egiaztapen Tekniko Administratibo bat nahitaezkoa izango da.

Era berean beste egiaztapen tekniko osoago eta zehaztuago bat gomendatzen da, hura amaitzen denean. Aurretiazko kontrol Teknikoaren aurretik egiaztapen administratibo bat aurreikusiko da.

**10.2.2.** Araudi-aginduak. Probari dagokion Araudi bereziak ondoren zehazten diren datuak zehaztu beharko ditu:

- a) Egiaztapen administratiboak zein ordutan hasi eta amaituko diren eta hauek zein tokitan burutuko diren.
- b) Aurretiazko egiaztapen Teknikoak zein ordutan hasi eta amaituko diren eta hauek zein tokitan burutuko diren.
- c) Zein tokitan kokatuko den(diren) Parke Itxia(k).
- d) Antolatzaileek, ahal den neurrian, kokaleku hauen guztiak irteera eta muga-erroarekiko hurbil egotea kontuan izango dute.

**10.2.3.** Egiaztapen Administratiboaren prozedura. Egiaztapen administratiboak inskribatutakoen zerrenda ofizialari jarraiki burutuko dira eta bare barne dituzte:

- a) Inskripzioko Buletinaren egiaztapena eta bereziki lehiakidearen sinaduraren kontrolarena eta behatzea ea ibilgailuaren ezaugarriak (Marka, mota, kategoria eta zilindrada eta honekin batera Taldea eta Maila) inskripzioarekin bat datozen ala ez.
- b) Ez da inolako aldaketarik ekarriko inskripzioko Buletinera araudian aurreikusitako kasuetan izan ezik.
- c) Baimen eta gidabaimenaren kontrola, hala badagokio.
- d) Gidabaimena eta ibilgailuaren nahitaezko aseguruak, zirkuituan ospatzen ez diren probetan.
- e) Pasaporte Tekniko ala Fitxa Teknikoari dagokion kontrola. Zirkuituko lasterketetarako baimenak Kirol Komisarioen eskura atxikita geratzea gomendatzen da.

**10.2.4.** Egiaztapen teknikoaren fitxa. Antolatzaileek proban inskribatutako ibilgailu bakoitzarentzat Egiaztapen-Fitxa bat eratuko dute, zeinetan lehiakide, pilotu, kopilotuaren (hala badagokio) datuak, marka, mota eta zilindrada bezalako ibilgailuaren datuak, esleitutako zenbakia, Taldea eta Maila eta egiaztapen teknikoan kontrolatu behar diren atal guztiak azalduko baitira.

Probaren Antolatzaileak Egiaztapen Tekniko honi dagokion Fitxaren inprimakia izango ez balu, F.G.A.-ri eskatu ahal izango dio.

**10.3.** Aurretiazko egiaztapenentarako arauak.

**10.3.1.** Aurretiazko egiaztapenak.

- a) Aurretiazko egiaztapenak batez ere kirol-izaerako itxura (baimenak, aseguruak, etab), ibilgailuaren formalidadeak (plakak, zenbakiak, etab.), ibilgailuaren ezaugarriak (marka, mota, zilindrada, etab.) egiaztapen Fitxaren bidez eginiko kontrola ala inskribatuen zerrenda, alegia ibilgailu bakoitza dagokion Talde eta mailan inskribatuta dagoen ala ez aztertuko dira eta oso bereziki, oinarritzko segurtasun elementuak (Segurtasun arkuak, su-itxalgailua, arnesa, kaskoak, traje ignifugoa, etab) hala nola Zirkulazio Kodearekin duen egokitasuna (hala badagokio). Horrek ez du ibilgailuetan egon ahal diren ageriko irregulartasun teknikoak oharkabean pasa behar direnik.

**Partaideek nahitaez kaskoa, Hans eta jantzi ignifugo osoa (lohihurtzekoa, eskularruak, sotokaskoa, mahuka luzeko kamiseta, barne-arropa luzea, galtzetinak eta botinak) aurkeztu beharko du hauek egiaztatzeko.**

**Segurtasun neurri hauen betetzea probaren edozein unetan egiaztatu ahal izango dira eta bere arau-hausteak barne izango du proban ez irtetea ala honetatik kanporatzea.**

Aurretiazko egiaztapen teknikoak egiaztapen administratibotatik aparte egin ahal dira.



- b)** Balizko anomaliak konpontzeari dagokionean lehiakideari ibilgailua kontrol berri batera aurkezteko aukera emango zaio, Kirol Komisarioek adierazitako ordutegiari jarraiki.
- c)** Ibilgailu bati dagokionean bere Homologazio-Fitxa, D.D.I.-ren j eranskina ala aurretiazko egiaztapenean egiaztatutako bere espezialitatean aplikagarria den araudi Teknikoarekin lotutako zalantzaren bat sortuko balitz, lehiakideari formala den idatzizko ohar bat igorriko zaio, Kontrol Teknikoetako arduradunak Kirol-Komisarioei zuzendutako idatzizko txosten batek jarraituko diolarik, eta hauek balizko anomalia horren ofiziozko kontrola aginduko dute, amaierako egiaztapenean. (Hau ez da aplikatuko segurtasuna eragingo balu).
- d)** Ibilgailu bati dagozkion aurretiazko Egiaztapenak inskribatutako Talde eta/edo mailaren ezaugarriekin bat etorriko ez balira, ibilgailu hau, Komisario Teknikoek hala proposatzen badute, Kirol Komisarioen erabakiari jarraiki dagokion Talde eta/edo Mailara transferitu ahal izango da.
- e)** Lasterketako zenbakiak, rally-ko plakak eta publizitateko bereizgarriak, ibilgailuan jarrita egon beharko dira honek aurretiazko egiaztapenera sarbidea burutu aurretik.
- f)** Beharrezkoa balitz, ibilgailu bat ordezteko ala elementu batzuk ordezteko aukerarik ez dagoela ziurtatzeko, zigilatu eta/edo markatu egin ahal izango da.
- g)** Kirol Komisarioen irizpideari jarraiki, inolako ibilgailuk ezin izango du entrenamendutan (egongo balira) ala lasterketan parte hartu, lehenago Komisario Teknikariek kontrolatu ez badute ala Pasaporte edo jarraipeneko Fitxa Teknikoa (egongo balitz) aurkeztu izan ez balitz.
- h)** Segurtasun arrazoiengatik ala espezialitateko Araudiekin bat ez etortzeagatik edozein ibilgailuri irteera ukatu ahal izango zaio.
- i)** Lasterketako Zuzendariak ibilgailu hauen egiaztapena baimendu ahal izango du zeinen lehiakideek Kirol Komisarioei justifikatu baitiete, hauen irizpideari jarraiki, bere atzerapena borondatez kanpoko arrazoiren batengatik izan dela.

#### **10.3.2.** Amaierako egiaztapena

- a)** Ibilgailu, marka, zigilatzeen egokitasunari dagokion lasterketara iristean egiaztapen bat aurreikusiko da, zein osoa eta zehatza izango baita. Honek batez ere ibilgailuak j eranskinari dagozkion eskakizunak betetzen dituela aztertuko du eta/edo aplikagarria den Araudiarekin bat etorriko dela, inskribatu den Maila, Taldeak eskatzen duen neurrian.
- b)** Arau orokor bezala, Amaierako Egiaztapen Teknikoan Sailkapen Nagusiko hiru lehenengo postuetako ibilgailuak kontrolatuko dira eta Talde ala Maila bakoitzean lehenengo sailkatuak, kasuaren arabera.
- c)** Kirol Komisarioek ala Lasterketako Zuzendariak Amaierako Egiaztapenean ibilgailuei ikuskatu behar diren atalak proposatuko dituzte, Komisario Teknikarien Buruarekin bat etorrita.
- d)** Lasterketako Zuzendariak idatziz jakinaraziko diete Komisario Teknikariei, zein diren kontrolatu beharreko ibilgailuak eta hauen atalak.

#### **10.4.** Lehiakideentzako arauak.

Lehiakideek ondorengo arauak errespetatu beharko dituzte:

- a)** Aurretiazko egiaztapenen ordutegiak zorrozki bete beharko dira. Ordutegi hauek araudietan zehaztuta azalduko dira eta lehiakideak eskatutako agiri guztiak eskuragarri izan beharko ditu. Aurretiazko Egiaztapen Teknikorako ezarritako ordutegia ez errespetatzeak, irteerari ekiterakoan BAIMENIK EZ IZATEA ekarri ahal izango du, frogatutako norbere borondatez kanpoko arrazoiren bat izan ezean, zein Kirol Komisarioek epaituko baitute. (Ikusi 10.3.1. i. Art.).

**b)** Lehiakideak, Egiaztapen Teknikoetara sarbidea izan aurretik Egiaztapen Administratiboari buruzko 10.2.3. Artikulua bete beharko du eta bere ibilgailuan errepideko zenbakiak, hala badagokio Rally-ko plakak, publizitatea, etab. (10.3.1 Art.).

e) Hala izan ezean, irteera burutzeko baimenik ez izateko zigorraren arriskuarekin.

**c)** Egiaztapenetan lehiakidea ala behar bezala egiaztatutako bere ordezkaria bertan egon beharko da. Azken honi borondatezko ordezkari bat onartzen zaio, beraz baimenduta dago edonolako erreklamazio nahiz apelazio proposatu ala errefusatzeko, bere erabakiak, edozein kasutan, Lehiakidearekiko lotesleak izanik.

Rally-etako Egiaztapen Ibiltarietan, betiere ordezkatzeko duen pertsona taldeko nahiz auto-barneko parte ez bada, inskripzioko Buletinean adierazitako lehenengo pilotuak, lehiakideari dagozkion betebeharrak eta erantzukizun guztiak bere gain hartuko ditu.

**d)** Edonolako egiaztapen teknikotan, eskatzen bazaio, nahitaez probaren data bitarteko bere hedadura guztiak barne dituen Homologazioa Fitxa osoa aurkeztu beharko du, ala bere kasuan ordeztu duen dokumentua eta Fitxa Teknikoa ala Pasaporte Teknikoa (egongo balitz), irteera burutzeko baimenik ez izateko ala lasterketatik kanporatzeko zigorraren arriskuarekin. Lehiakideak kontuan izan beharko du, bere ibilgailuaren erregulartasunari buruzko edonolako epaiketa, Homologazioa Fitxaren oinarrian ala bere kasuan ordeztu duen Dokumentuan adieraziko dela, zein honek kontrol teknikorako aurkeztuko baitu.

**e)** Aurretiazko Egiaztapen Teknikoa gainditu duen ibilgailuaren lehiakideak ezingo du hau ezberdina litzatekeen beste edonolako egiaztapenera ez eramateko esan, irteera burutzeko baimenik ez izateko ala lasterketatik kanporatzeko zigorraren arriskuarekin. Hala ere, lehiakideak, proba hasi aurretik, bere ibilgailuaren atalak desmuntatzea ekidin ahal izango du, aldeztu aurretik zigilatuta eta/edo markatuta, hauek Homologazio Fitxarekin eta aplikatu beharreko araudiarekin erabat egokitzen direla idatziz adieraziaz, eta, edozein kasutan, baita bertan behera uztearen kasuan ere, probaren amaieran ibilgailua bere egiaztapena burutzeko eramatera konprometitzen dela.

**f)** Ibilgailuak bere Homologazio Fitxarekin ala bere kasuan hau ordeztu duen Dokumentuarekin eta Araudiekin egokituko da, probaren une guztietan.

**g)** Lastatutako ibilgailua ala lastatutako atalak dituen ibilgailua duten Lehiakideen (baimenduta balego) aurretiazko egiaztapenetan lasta adierazi beharko dute. Lastetako inkapenak, zulo bat izango dute zigilatze alantzat jarri ahal izateko. Adierazi gabeko edonolako lasta zein ezin baita zigilatua izan, ez da ondorengo egiaztapen eta kontrolatan kontsideratuko.

**h)** Lehiakideek edonolako egiaztapen teknikotan Lasterketako Zuzendariak ala Kirol Komisarioek bere kontrolerako beharrezkotzat joko luketen edonolako pieza ala lagin hornitzeko betebeharrak izango dute. Desmuntatu ahal bada, pieza bere ondorengo kontrolerako zigilatuta eta/edo markatuta egongo da, hauek behar bezalako egoeran mantentzea lehiakidearen erantzukizuna izanik. Adierazpen hauek betetzen ez badira, lasterketatik kanporatzeko arriskua egongo da.

**i)** Egiaztapen tekniko guztietan kontrolatuko den ibilgailuaren lehiakidea ala idatziz honek baimendutako pertsona soilik egon ahal izango dira, baita erreklamazioa ala apelazioa dela medio sustatutakoak ere. Ofiziozko egiaztapenetan ala erreklamazioa nahiz apelazioa dela medio sustatutakoetan, egiaztatu beharreko ibilgailuaren lehiakideak desmuntatze zereginetarako bere kargura izateko gehienez bi mekanikari esleitu ahal izango ditu, Kirol Komisarioei egokia iruditzen bazaie ala bere kasuan F.G.A.-ren Apelazioko Auzitegiari.

### **11. Artikulua- PARKE ITXIA**

- 11.1.** Parke Itxia nahitaezkoa izango da egiaztapen teknikoak aurreikusita dituzten lehiaketa guztietan. Probari dagokion Araudi Bereziak tokia zehaztuko du zeinetan Parke Itxia instalatuko baita.
- 11.2.** Parke Itxiaren barnean, zeinen sarbidea ez baitzaio horretarako izendatutako Ofizialei baino baimenduko (zeinen esku egongo baita Parkearen behar bezalako funtzionamendua eta lehiakideei nahiz pilotuei aginduak emateko baimendu bakarrak izango dira), debekatuta egongo da edonolako egiaztapen, doitze ala konponketa eragiketa burutzea, aipatutako ofizialek baimendutako kasuetan izan ezik.
- 11.3** Parke Itxia behar adina handia izateaz gainera babestuta egongo da baimendu gabeko pertsonarik bertara sartu ahal ezin izateko.

### **12. Artikulua- KONTROLA ETA MEDIKU-LAGUNTZA**

- 12.1.** F.G.A.-k probaren garapeneko edozein unetan antidoping kontrola burutzeko eskubidea gordetzen du. Lasterketako Zuzendariak ala mediku arduradun Buruak pilotuari proban zeharreko edozein unetan azterketa mediku bat egin dezan eskatu ahal izango diote.
- 12.2.** Publikoarentzako itxita dauden tarte, trazatu ala ibilbide guztietan UCI, anbulantzia ala medikuntza arloko helikoptero bat eskuragarri izatea nahitaezkoa izango da, laguntza-zentroa bertatik 25 kilometrora baino gehiagora dagoen kasuetan.

### **13. Artikulua- PROBAKO OFIZIALAK**

- 13.1.** Ofizialen taula Araudi Berezian konfiguratuko da, hau onartua izan ahal dadin eta Autonomia Erkidego honetan ospatzen diren proba guztietarako, Gipuzkoako Txapelketetarako puntuak lortzeko balio izan ala ez. Gutxienez ondorengo konposaketa izango dute:

DC baimena duen Lasterketako Zuzendari bat.  
CD baimena duten hiru Kirol Komisario.  
OC baimena duen Komisario Teknikarien Buru bat.  
OB baimena duen Kronometratzaileen Buru bat.  
SC baimena duen Probarako Idazkari bat.

**Kirol komisarioen elkargoko lehendakaria, kirol komisarioa eta komisario teknikarien burua EAF-FVA.k izendatuko ditu.**

Horiek guztiak indarrean dauden baimenekin zeinen zenbakia eta maila bere izena eta abizenen ondoren azalduko baitira. Araudi Berezian azaltzen diren Probarako Ofizial guztiek, Gipuzkoako Automobilismo Ofizialen Elkargoari bere adostasuna jakinarazi beharko diote.

- 13.2.** Kronometratzaileek eta Komisario Teknikariek dagozkien baimenak eduki beharko dituzte (OB eta OC) eta Araudi Berezian, Kronometratzaileen talde bat adieraziko da.

**13.3.** Proba guztietan, nahitaezkoa izango da Mediku Epaille batekin kontaktzea, zein osasun segurtasunaren arduraduna izango baita.

#### **14. Artikulua- ERREKLAMAZIOAK ETA APELAZIOAK**

C.D.I.-ren XII eta XIII, kapituluak aplikatu ahal izango dira

**14.1.** Edozein lehiakidek beste batek aplikagarriak diren Araudi Teknikoekin duen adostasunaren aurkako erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du. Hau elementu mekaniko ezberdinei buruzko izan ahal izango da, zein nahitaez zehaztuta egon beharko baitira. Ondorioz, ibilgailu baten aurkako erreklamazio bakar bat elementu mekaniko ezberdinen multzo bati buruz aritu ahal izango da. Baina hauek, zehazki identifikatu behar dira.

Edozein kasutan erreklamazioak ongi definitutako alderdien inguruan zehaztu beharko dira,

Inoiz ez kontzeptu zentzugabe ala orokorreki buruz.

Adibidez, ezin izango da erreklamaziorik burutu ibilgailuaren prestazioen aurka, egonkortasunaren aurka, motorraren aurka, etab. Hala ere, motorraren elementu mekanikoen multzo baten aurka erreklamatu ahal liteke, zeinek azken batean zehazki identifikatuko balira ia multzoaren osotasuna eratuko bailukete.

Alde batetik erreklamazio batek elementu mekaniko oso ezberdinei dagozkien kontzeptu ezberdinak izan ahal lituzke barne, adibidez, karrozeriari erantsitako materialari buruz aritu ahal liteke, atzeko treneko homologatu gabeko balaztak, motorraren zilindrada, espeka-zuhaitzaren diagrama, motorraren behealdeak eta irregularrak diren karrozeriaren barne dauden kanalizazioak.

**14.2. Erreklamaziorako** kauzioa **2009**rako **1.000 €**-tan finkatuta geratuko da. Erreklamazioak ibilgailua desmuntatzea barne izango balu desmuntatzea burutu beharreko tokian eta zein ibilgailu denaren arabera eragiketaren izaeraren eta indarrean dagoen orduko tarifaren arabera ezarritako fidantza osagarri bat eskatuko litzateke eskulanerako.

Fidantza osagarri hau kalkulatzeko, oinarri bezala R.F.E.A.-k urtero argitaratzen dituen taulak hartuko dira.

**14.3.** 360 €-ko kauzio osagarri bat eskatuko da, erreklamazioa ibilgailuaren pisuari buruz egingo balitz.

**14.4** Erreklamazioaren barne hainbat elementu baleude, dagokion fidantza egiaztapeneko gastu ezberdinen metaketa izango da.

**14.4.** Erreklamazioa oinarrituta balego, erreklamatzeko duenari fidantzak itzuliko zaizkio eta erreklamatuak egiaztapeneko gastu errealekin kargatuko du, halaber isun bezala 360 €-ko kopurua ordainduz, beste hainbat zigorren kalterako izan gabe.

**14.5.** Erreklamazioak funtsik izango ez balu, erreklamazioa egiten duenak 1.000 €-ko fidantza galduko du, eta organizazioak gastu errealek ordainduko ditu fidantza osagarriaren karguarekin, gainerako –hala badagokio- erreklamazioa egiten duenari itzuliaz. Erreklamatuak ezin izango du inolako indemnaziorik eskatu.

**14.7.** Ofiziozko egiaztapenei dagokionean egiaztapeneko gastu errealak, lehiakidea errugabea balitz, antolatzailearen kargura joango. Aurkako kasuan, lehiakide errudunak, egiaztapeneko gastu errealak ordaintzeaz gainera, 360 €-ko isun bat ordainduko du, beste hainbat zigorren kalterako izan gabe.

**14.8. Apelazioko** kauziorako **2009**rako **2.500 €**-tan finkatuta geratuko da.

### **15. Artikulua- SAILKAPENEN AKTA**

**15.1.** Sailkapena ofiziala denean, erakunde Antolatzaileak Gipuzkoako Automobilismo Federaziora nahitaez fax bidez Sailkapen Ofiziala eta Irteera hartzeko Baimenduen Zerrenda igorriko ditu.

**15.2.** Zerrenda horretan pilotuaren izena eta abizenak jarriko dira eta kopilotuarenak bere kasuan, Baimenen zenbakiak (Pilotua, Kopilotua eta Lehiakidea), baita marka, eredua, zilindrada, eta ibilgailuaren Taldea ere Maila Federazio honetako Araudietan zehaztutakoari jarraiki. Arau hau ez betetzeak, hurrengo urterako probaren puntuak lortzeko aukera galtzea ekarriko du, baita aurtengo urteko Diru-laguntza galtzea ere.

**15.3.** Modalitate bakoitzeko batzordeko arduradunak Diziplina-Araudi bat edukiko du, mailakako murrizpen ekonomikoekin, araudiak ez betetzeari dagokionean.

### **16. Artikulua- TXAPELKETA BATEKO SAILKAPENEN BERDINKETA**

**16.1.** Txapelketaren amaieran, hainbat partaidek puntu-kopuru berdina lortzen dutenean, berdinketa hausteko araua ondorengoa izango da:

**1º** Zilindrada gutxienekoa, horretarako zilindrada zehatza hartuaz, ibilgailuaren Homologazio Fitxaren arabera.

**2º** Horietako bakoitzak atxikitako puntuak batzeko balio izan duten probei dagokionean Scratch Sailkapenean izan duten postuen kalitatearen arabera (lehenengoak, bigarrenak, etab.).

**3º** Proba batean posturik hoberena lortu izan duen lehenengoa.

**4º** Berdinketak iraungo balu Ex-aequo bezala hartuko da.

### **17. Artikulua- ZITAZIOAK, EBAZPENAK ETA DEIALDIAK**

**17.1.** Lehiakide bati dagokio (ala behar bezala egiaztatutako bere ordezkariari) behar bezalako kolaborazioa ematea probaren garapenean zehar Lasterketako Zuzendariak, bere laguntzaileak ala Kirol Komisarioen Elkargoak burututako edonolako zitazio, ebazpen ala deialdiri buruz informatua izateko, zeinek bere taldeari eragiten baitio.

**17.2.** Salbuespen bezala, zitazioa, ebazpena ala deialdia probaren iragarki-taulan argitaratuko da eta jakinarazpen bezala nahikoa izango da interesatutako lehiakideari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik pertsonalki burutu ahal ezin izan bada.

Kasu horretan, probako Idazkariak burututako zitazioari dagokion txosten bat idatziko du zein Kirol Komisarioen Elkargora igorriko baita bere ezagutzarako eta dagozkion ondorioarako.

Hau gertatutakoan, Kirol Komisarioen Elkargoak espedienteari ekin ahal izango dio eta eraginiko lehiakideek ezin izango dute horregatik ezjakintasunik alegatu.

**18. Artikulua- SEGURTASUNEO ETA INTERBENTZIOKO IBILGAILUAK**

- 18.1.** Antolatzaileak, gutxienez, "0"-rekin zenbatutako segurtasun ibilgailu bat aurreikusi beharko du. Ibilgailu honek txanda guztiak, entrenamenduak eta lasterketa burutu beharko ditu, gutxienez, lehenengo partaideari dagokionean 3 minutu lehenago irtengo delarik. Helmugara iristen denean Lasterketaren zuzendariari ibilbidearen egoera globala jakinaraziko dio.
- 18.2.** Antolatzaileek interbentzio azkarreko ibilgailu bat eskuragarri izan behar dute, "R" deiturikoa, proban zehar edozein istripu gertatuta ere parte hartzeko prestatuta egonik, Lasterketako Zuzendariaren esanetara.
- 18.3.** Ibilgailu hauek gutxienez hornidura batekin kontatu beharko dute, su-itxalgailu, lehen sorospentarako botikina eta istripuaren kasuan gidaria ibilgailutik ateratzeko behar adina tresneriarekin.
- 18.4.** "R" ibilgailuak identifikazio, seinaleztapen optiko eta larrialdiko akustikoarekin hornituta egon beharko dira.
- 18.5.** Garabi-zerbitzua proban garatu beharreko zereginak ala funtzioak burutzeko ezartzen da bere zeregina errepidea libre uztera mugatzen dela kontsideratuz, eta ez zerbitzu osagarriak eskaintzera.

**19. Artikulua- SARIEN BANAKETA**

F.G.A.-ren sari banaketan nahitaezkoa da Txapelketa, Kopa ala Sari bakoitzeko irabazle ala bigarren sailkatuaren bertaratzea nahitaezkoa da. Arau hau ez betetzeak sariaren galera barne izango du.

**20. Artikulua- ARAUDIEN APLIKAZIOA ETA INTERPRETAZIOA**

**20.1.** Dagozkion Gipuzkoako Automobilismo Federazioko Batzordeak Agindu Komun nahiz Gipuzkoako Txapelketa, Kopa, Sari ala Challenge-tako Araudi Nagusi hauek aplikatzerakoan ala interpretatzerakoan sortu ahal liratekeen zalantzak konpontzeko ahalmena duten bakarrak izango dira.

**21. Artikulua.- BESTE TXAPELKETA BATZUETARAKO PROBA PUNTUAGARRIAK**

**21.1.** Salbuespenez, proba bat puntuagarri denean Gipuzkoako Txapelketarako edo goragoko beste txapelketa baterako (Espainiakoa edo Europakoa, adibidez), goiko kategoriako araudia erabiliko da, baina Euskadiko araudiari ahalik eta gehien lotzea gomendatzen da.